

GURE HIRIEN IZENAK. VITORIA, GASTEIZ? Euskal Herriko hirieri beren izen jatorra itzuli beharra zegoen, batez ere euskaldunaren ahoetan mendeak zehar etorri zaigunean. Baina beharkizun hori itxurakeri hutsera eroan duenik ere bada, kontu hortan edozein astakillok parte hartu duenez. Maiz, borondaterik onenakin ere gure hizkuntzari eta historiari on egin beharrean kalte egin zaio. Saturnino Ruiz de Loizagak arrazoiz idatzi zuen «Los nombres de nuestros pueblos» (Boletín de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País, XXXIX, 772-777 orr.) zeritzan artikulua hura. Han bertan, zenbait eritziren artean, hau zion: «¿Por qué no añadir a Vitoria-Gasteiz-Abendaño, barrio dentro de la ciudad y tan antiguo o más que Gasteiz...? *Nihil violentum durable...*».

Izen zaharren argibideari jarraituz, oraindik urrutiago joan gindezke. Norbaitek, eskubide berdinarekin esan dezake: Zergatik ez *El Campillo*? Zeren honako testu hau irakurtzea ere posible bait da: «Fue Vitoria fundada en 1181 por D. Sancho el Sabio de Navarra, sirviéndole de base la aldea de Gázteiz, situada en la parte de la población que en la actualidad se conoce con el nombre de *El Campillo* y también por el de *Villa-Suso*». Vicente Vera-k dakarrenez *Geografía General del País Vasco-Navarro*-ren *Alava* tomoan (269-270 orr.).

Baina gauzak ez nahasteko jo dezagun iturri zuzenagoetara, zeren Arabako historiaren baino aisago Vitoriako foruak emango bai digu argia. Egia da Vitoria hiria Gasteiz herrixka edo auzoa zen lekuan sortu zuela Nafarroako erregeak, Moret-ek *Annales del Reyno de Navarra*-ko bigarren tomoaren 527. orrialdean ongi dion bezala: «solo havia una pequeña Aldea, que se llamaba Gasteiz, como dice el Rey en su carta de Fundación, y Fuero». Urrengo orrialdean, 528.ean, zehatzago aitortuko zuen: «Dice el Rey con palabras expresas: *Tuvo agradable voluntad de poblar en aquella Villa, a la qual puso nuevo nombre, llamandola Victoria, a la que antes se llamaba Gasteiz*».

Gasteizek ez du iraun euskaldunon ahoetan eta inoren memorian, paper zahar hoietako agirietan baizik. Badakigu izen hoiek finkatzea oso gauza konbentzionala dela, baina euskaldun

jatorrentzat Bitoria (Bittoria, Bitxoria, Bitxorixa) izan da eza-gunena. Eta historia aldetik ere badu bere garrantzia, Nafarroako errege batek hala jarri zionez «*que antea vocabatur Gasteiz*» zen lekuan hiria sortzeaz, erregeren foruak dionez. Beraz, rangoz aldatzen da, lehen herrixka zena hiru bihurtuz, eta ongi begiratzen baldin badugu, hiria ezin daiteke Gasteiz izan, ez bait da herrixka, toki izen zaharra Gasteiz zela ukatu gabe, aitortu beharrean naiz Vitoria edo Bitoria, historiazale garenontzat garrantzi handiko izena dela, Nafarroako errege batek hiri bihurtzean hala bataiatu zuenez. Horrela mantentzeko arrazoi politikoa ere bazuen abertzaleontzat, noizbait Nafarroako erresuman biltzen ginela lekukotzen duelako.

Amor eman dezakegu, hala nahi baldin badugu, baina bide hortatik historia gure aurka jartzen ari gara. Hemen, gure egunotan, edozein ezjakinek du hiri izenak aldatzeko esku-bidea eta bide horretatik ez goaz ondo. Zorritzarrez, historia-gileak ere oso txarrak ditugu holako auzietan argia eta kontseilu ona eman ahal izateko eta gaiari holako karisma ipini diogunez Euskaltzaindia bera ere izaturik agertzen zaigu. Behar bada, lehenago Vitoria-Gasteiz, bata bestea ukatzeke (ikus *Euskera*, XXVIII, 1983, 135.orrialdean), gero *Zornotza* eta *Trapaga*-rekin egin duen bezala (ikus, *Euskera*, XXIX, 1984, 275-278 orr.), maizago eman behar lituzke «Herri-izenei buruzko diktamenak».

J. S. M.